

e-rritarrak

Antzokien zain egon beharrean, antzerkia etxera ekarri dute bi aktore iruindarrek

Etxeko txirrina jo orduko hasten da antzezpena. Ez dago sarrera erosteko ilara egin beharrik. Ezta argiak noiz itzaliko itxaron beharrik ere. Antzokietan geroz eta gutxiago programatzen dela ikusita, eszenatokia euren etxeko egongelara eramatea erabaki dute bi aktore iruindarrek. Ostiralero eskaintzen dituzte saioak, bi ordutegitan.

Amalur Artola

Ez dira urte onak kulturarako. Antzokietan geroz eta gutxiago programa- tzen da, kulturazaleak sarreren salneurriez kezu izaten dira oro har eta kulturagintzan dabiltzanek arazoak dituzte euren lanak aretoetako taularaino eramateko. Egoera epe laburrean aldatuko den esperantzarik ezean, bi aktore iruindarrek eskura dituzten baliabideak zerrendatu, sormena erabili eta inizatiba hartu dute: aretoak eurengana etorriko ez badira, beraiena etxeko egongelan jartzea erabaki dute.

«Buenos Airesen hasi zen guztia», azaldu du Maitane Perezek, Maider Lekunberriekin batera La Cuerda Teatro osatzen duen aktoreak. Biek Nafarroako Antzerki Eskolan ikasi zuten eta Maitane Argentinara joan zen, ostean. Han bizitzen emandako urte eta erdian, Buenos Airesen kultura ulertzeko –eta praktikara eramateko– duten erak bere arreta erakarri zuen: «Antzerkia egiteko modu asko daude eta han ikusi genuen baldintzak okerragoak izanda ere ez dutela itxaroten areto edo baldintza onak izan arte euren proiektuak aurrera eramateko: denetarik egiten dute. Antzoki handiek noiz deituko zain egon beharrean, konpainia gehienek euren areto propioa muntatzen dute, espazioak 50 pertsona ingururentzat egokitzen dituzte eta euren proiektuak horietan estreinatu eta programatzen dituzte. Buenos Airesen bakarrik halako 300 areto inguru daude». Espazio alternatibo horietaz gainera, bertan oso ohikoa da etxeetan, tabernetan eta tankerako espazioetan kultur ekitaldiak ikusteko biltzea. «Beste kultura bat dute, antzerkia gertuago bizi dute. Han, jendea maiz joaten da antzezlanak ikustera; hemen, jendea erakartzeko etengabe borrokatu behar dugu», dio Maitanek.

Argentinan emandako denboran egin zituen kontaktuak baliatuz, iazko uztail eta abuztua Buenos Airesen eman zituen La Cuerda Teatrotik, antzokiz antzoki, Maite Redinek zuzendutako “Flores arrancadas a la niebla” antzeztan. «Han, asko antzeztu genuen obra hori eta, irailean, hona itzuli ginenean, ia-ia aukerarik ez geneukala ikusi genuen. Geldirik egon beharrean, aurrera egiteko modua bilatu behar genuela pentsatu genuen eta eskura geneukana etxea bera zenez, etxeko egongelan egiteko formatu txikiko obra bat sortu genuen».

Eguberrietan ekin zioten lanari eta ekimenak jendearen aldetik izango zuen harreraren beldur zirela aitortu du Maitanek, «Iruñea ez delako, inondik inora, Buenos Aires». Emaitzarekin oso gustura daude, ordea: «Zortzi antzeztan egin genituen eta oso arrakastatsuak izan ziren, jendea lekurik gabe geratzen zen, etxeko egongela lepo beteta... Horrek aurrera egiteko indarra eman zigun eta orain ostiralero eskaintzen ditugu antzezlanak». Bi ordutegitan, gainera, 20.00etan eta 21.00etan. Antzezlanak 30 minutu inguruko iraupena du eta aurrez lekua hartu

behar da, *lacuerdateatro@gmail.com* helbidean. Izan ere, Gabonak pasatuta «lasaiago» dabilzala esan du Maitanek, baina hala ere jendea izan ohi dutela: «Normalean, betetzen da, bai. Gainera, guk ez dugu sarrerarik kobratzen, hau da, norberak bere borondatearen arabera edo saioaz disfrutatu duenaren arabera ordaintzen du». Alde horretatik, baina, jendea esker onekoa dela dio: «Preziosa finkatuta dagoenean baino gusturago ematen dute dirua, nik uste. Agian, jendeari kosta egiten zaio antzoki handi batera joateko 10 euro jartzea, baina gero guri eman egiten dizkigute, beraien aukera denez ematea edo eman gabe geratzea, gusturago ematen digute. Esker onekoak dira».

Tentsiotik giro intimora

Hamar pertsona kabitzen dira Maitane eta Mainerren egongelan. Sofak, aulkiak... ikusleak ahal bezain eroso egoteko atondu ohi dituzte. Argiztapena zaintzen dute. Giro goxoa sortzea dute helburu. «Berezia da, ikusleak sartzen diren unean bertan hasten delako antzezlan. Harrera pertsonaiaren rolean sartuta egiten diegu eta, hasieran, ez genekien nola hartuko zuten halako gauza bat, baina jendeak zerbait berezia eta ezberdina egitea eskertu egiten duela ikusi dugu. Kuriositate handiarekin datoz». Hasieran, giro bitxia sortzen dela dio, ikusleak tentsio puntu batekin eta «ea hemen zer egiten didaten...» pentsatuz sartzen direla, baina segituan antzezlanearn baneratu, eta ekitaldia amaitzen denean, gehienak eurekin hitz egin eta eskerrak ematera joaten zaizkiela nabarmendu du: «Asko disfrutatzen dutela esaten digute, gure proposamena baloratzen dutela eta geldirik egon beharrean proiektu hau aurrera atera izana txalotzen dute. Guk beti erreibindikatzeko dugu guretzat, edozein aktorarentzat bezala, oso polita dela antzoki batean antzeztea eta, noski, horri ez diogula ezezkoa emango, baina hori etorri arte ez garela geldirik egongo eta gauza berriak sortzen jarraituko dugula ere argi dugu», ziurtatu du.

Antzezle diren aldetik, ikusleekiko gertutasunari zukua atera diotela adierazi du: «Guretzat ere oso interesgarria da jendea horren hurbil ikustea. Ez gaude ohituta, antzerkia beti urrutitik egiten dugu eta jendearen aurpegiak, erreakzioak, gauzak nola jasotzen dituzten ikustea interesgarria da, eta gure diskurtsoan eta doinuak, antzezteko eran eragina izaten du. Gidoiari eutsiz, noski, baina interpretazio aldetik aldaketak egiten ditugu».

Ikusleen profilagatik galdetuta, uste zutenaren kontra, denetariko jendea etortzen zaiela aipatu du Maitanek, gazte eta adineko, baita antzokietara joateko ohiturarik ez duten pertsonak ere: «Hasieran, txartel batzuk egin genituen eta gure inguruko jendeak banatu zituenez, gehienak euren inguruko jendearengana iritsi ziren. Hasieran, nagusiki gu bezalako jendea, kulturarekiko interesa duena etorriko zela pentsatu genuen, Iruñeak ekimen berritzaileak behar dituela pentsatzen duten horiek, eta harrিতa gaude jende asko eta denetarikoa etortzen ari delako. Gazte asko, baina baita adineko asko ere, ez dakigu gure gurasoek mugitutako txartelen eragina izango ote den, baina hala da!», esan du.

Bi antzezlan, espazio banatarako

Eskuarte bi antzezlan dituzte orain La Cuerda Teatroko kideek. “Flores arrancadas a la niebla” eta “Sólo vine a llamar por teléfono”, biak gazteleraz. Lehena antzokietarako pentsatuta dago, «baina ez da saltzen». «Kultur etxeek geroz eta guxiago kontratatzen dute eta gehienbat estilo bereko antzezlanak bilatzen dituzte. Gurea poetikoagoa da, abstraktoagoa, apur bat ezberdina. Umore asko du, baina ez da komedia komertziala». Nafarroako Antzerki Eskolan estreinatu ostean, Argentinan antzeztu zuten, bi hilabetez.

Bigarrena formatu txikiagorako pentsatuta dago. Etxeko egongelan antzeztu duten “Sólo vine a llamar por teléfono” Gabriel Garcia Marquez-en ipuin baten inguruan sortutako obra da. «Ipuin horren inguruan, bi pertsonaiaren arteko istorio bat asmatu dugu. Ipuina zatika kontatzen dugu eta, bitartean, gure artean hainbat gauza gertatzen dira». Une honetan proposamen hori badute ere, euren etxean antzeztu jarraitzeko asmoa dutela aurreratu du Maitanek eta, beraz, euren

“programazioa” aldatzen joango direla: «Ekimen honi jarraipena eman nahi diogu eta obra berri bat muntatzen hasi gara, dagoeneko etorri den jendeak ere errepikatzeko aukera izan dezan». Era berean, eredu hori “kutsatzeko” irrika agertu du: «Ez dugu ezer berririk asmatu, bestelako eredu baten alde egitea erabaki dugu soilik eta gure inguruko antzezleak ere gauza bera egitera animatu nahi ditugu, ea denon artean zirkuitu alternatibo bat muntatzen hasten garen, bestela hemen ez baitago ezer egiterik».

naiz:

- Astero
- Nor gara
- info(a bildua)gaur8.info

Laguntzaileak

